

HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

# HM UDAZKENEKO KONTZERTUA

2020ko urriaren 24an - 18:30 - San Esteban eliza (Oiartzun) - 5 €

## AMAK

(Euskal Herria)



**Amaia Oreja** trikitia, panderoa, ahotsa trikitia, panderoa, ahotsa trikitia, panderoa, ahotsa trikitia, panderoa, ahotsa

*Amak* amak dira eta lau. Lau trikiti edo lau pandero eta lau ahots. Lau izenen lehen letrarekin osatutako taldea eta, gainera, lauak amak dira. *Amak* ikuskizun biribila eskainiko duen taldea da: Alaitz Telletxea (Alaitz eta Maider), Maixa Lizarribar (Maixa ta Ixiar), Amaia Oreja (M-n Ezten) eta Kristina Solano (M-n Ezten). Euskal Herriko folk musikaren ertzak betiko moldeetatik atera eta proposamena gorpuztu nahi dute plaza arruntetatik kanpo. Ikuskizuna bitxia eskainiko digute trikiti, pandero eta ahotsen hamaika bariazio edo konbinazioekin, eta horrela lortuko dute kantuei formula berriak lantzea. Iparraldeko kantaerako ohituraren ikuspegiari gehituko dizkiete une berean astindutako lau trikiti eta lortuko den musika koloreak ikuslearen gozamen ekarriko du areto edo aulkiz betetako plazetan. Jaia bai baina agertokiari erreparatuta. Sentimendu handiko kantuekin eraikiko dute entzulearen arreta. *Amak* taldea ezohikoa da. Euskal Herria irudikatzen aukerak eskainiko dituzte 50 minutuko errepertorioarekin. Kantu propioak, datozen jatorrizko taldeen kantuen bertsiok eta pot-pourriak osatuko dituzte, eta abesti klasiko batzuen moldaketak. Proposamen atsegin bat landuko du *Amak* taldeak eta dotorea, bai horixe.

*Amak* son madres y cuatro. Cuatro trikis o cuatro panderos a cuatro voces. El grupo formado con las iniciales de sus nombres son *Amak*. Se trata de Alaitz Telletxea (Alaitz eta Maider), Maixa Lizarribar (Maixa ta Ixiar), Amaia Oreja (M-n Ezten) y Kristina Solano (M-n Ezten). Proponen abrir los moldes de siempre que tiene la música folk vasca para indagar desde los bordes y encarnar una propuesta fuera de las plazas ordinarias. Nos ofrecerán un espectáculo curioso con variantes diversas o combinaciones de trikis, pandero y voz, consiguiendo así trabajar nuevas fórmulas en las canciones. Cuatro trikis sacudidas en el mismo momento hará que el color musical que se obtenga será disfrute para el espectador en salas plazas llenas de sillas. Fiesta sí pero atendiendo al escenario. Construirán la atención del oyente con canciones de mucho sentimiento. El grupo *Amak* es inusual y tienen un repertorio de 50 minutos. Canciones propias, versiones de canciones de sus grupos originales y pot-pourri y arreglos de algunas canciones clásicas. *Amak* trabajará una propuesta agradable y lúcida.



# TORNAVEUS

(Katalunia)



*Tornaveus* ahozko tradizioko musika ikertzen duten musikariz osatutako polifonia herrikoia egiten duen talde kataluniarra da. Katalanez hitz egiten duten lurraldeetan egin dute bilketa lana. Landa-ikerketaren emaitzetatik atera dituzten abestiak, formula polifonikoak eta abesteko moduak eraman dituzte ikuskizunera.

*Tornaveus*-en ahotsak -Jaume Ayats, Heura Gaya, Anaís Falcó, Iris Gayete eta Ester G. Llop-enak- lehenengo aldiz 2011. urtearen amaieran elkartu ziren. Geroztik Katalunia osoko, Valentziako, Ipar Kataluniako, Okzitaniako, Euskal Herriko eta Sardiniako jaialdietan eta kontzertuetan parte hartu dute. Orain dela urte pare bat bere lehen diskoa aurkeztu zuten, *Tornaveus*. Geroztik, kataluniar polifonia herrikoia Lituania eta Ameriketako Estatu Batuetan ere abestu dute.

*Tornaveus*-ek aldizka musika tradizionalaren dibulgazio topaketetan parte hartzen du. Bertan kantu eta ahotsa laguntzen duten soinu-tresnen tailerrak ematen ditu.

*Tornaveus* es un grupo de polifonía tradicional catalana formado por investigadores de músicas de tradición oral, que han trabajado en todos los territorios de habla catalana. Han trasladado a su espectáculo los cantos, las fórmulas polifónicas y las maneras de cantar que han extraído de los resultados sobre sus investigaciones de campo.

Las voces de *Tornaveus* -la de Jaume Ayats, Heura Gaya, Anaís Falcó, Iris Gayete y Ester G. Llop- se reunieron por primera vez a finales de 2011. Desde entonces han participado en festivales y conciertos en toda Cataluña, el País Valenciano, Cataluña Norte, Occitania, el País Vasco y Cerdeña.

Hace un par de años presentaron su primer disco, *Tornaveus*. Desde entonces, también han cantado polifonía popular catalana en Lituania y Estados Unidos.

*Tornaveus* participa regularmente en encuentros de divulgación de la música tradicional e imparte talleres de canto y de instrumentos que acompañan la voz.



**kontzertu honen  
laguntzaileak:**

KULTUR, JOLAS ETA KIROL ELKARTEA

**ibargain**  
Aialde OIARTZUN

**ETA  
GOIZEAN**

**EMANALDI DIDAKTIKOA**  
**Polifonia tradizional kataluniarra**

*Lekua:* Manuel Lekuona  
biblioteka

*Eguna:* 2020-10-24

*Ordua:* 11:30

Gaztetxoei zuzendutako

tailer honetan Kataluniar polifonia tradizionala ezagutuko dugu, bost kanta edo ariketatik abiatuta. Taldean abestu eta grabatutako hainbat adibide entzun eta komentatuko ditugu.